

JARDUERA: XAGUXATAR PARKEA

HARTZAILEAK: LEHEN HEZKUNTZA 1 eta 2 mailak.

DENBORA: 40 min.

HELBURUAK:

- Xaguxatarrak nolakoak diren ikastea eta bereiztea. Izarraitzen bizi diren xaguxatar espezieak ezagutzea.

EDUKIAK:

- Xaguxatarrak, elikadura, bizilekua, ugalketa, hibernazioa.

METODOLOGIA:

- Bisitaldian, jarduerari hasiera emateko xaguxatarren berri emango zaie, nola bizi diren? Zer jaten duten?

Eta parkeak dituen eremu desberdinak aprobetxatuko ditugu berezitasun horiek azaltzeko.

GIDOIA:

- Ongi etorria.
- Umeei azaldu egingo den ekintza.

JARDUERA: XAGUXATAR PARKEA

Gizakiak, erabilgarriak dituen animaliak bakarrik zaintzen ditu. Behiak es-nea ematen dutelako, oiloak arrautzak... eta ez gara konturatzen animalia guztiak beharrezkoak ditugula gure bizitzan.

XaguXatarrak?

Egia esan behar bada, jende askok beldurra edo nazka die xaguxatarrei. Aspalditik daramaten ospe txarra kendu ezinik dabilta. Horregatik, bere bizimodu ezezagun bezain harrigarriaren berri izango duzu, gaur, Azpeitiko parke honetan.

Bertan 4 xaguxatar espezie desberdin bizi dira.

“Aupa lagunok gu parkeko taldea gara:


RHINO Sudurzabala



MYO tximaluzea



PLECO belarriHandi
bakartia



AURI azazkal LUzedun
baSozalea



JARDUERA: XAGUXATAR PARKEA

Esaten da saguitsuak hegalekin garela eta ez da horrela. Bai egunez eta gauez oso ondo ikusten dugu eta ez daukagu zer ikusirik saguekin. Egia esan, gauza askotan, saguen antza baino gehiago zuena dugu. Ez dugu argitasuna gustuko eta oso entzumen ona dugu.

Naiz eta txoriak bezala hegan egin ez dugu haiekin zer ikusirik.

Gu ugaztunak gara, ilea dugu eta hortzak ditugu jateko, ez dugu arrautzarik jartzen eta amaren sabeletik jaiotzen gara, jaio berritan amaren bularretik esnea hartzen dugu, koxkortzen garenean, berri, intsektuak jaten ditugu.

Koba zuloetan, ganbara eta zuhaitz zaharretan bizi gara.

Gure azazkalak bereziak dira ondo heltzeko zuhaitzetako enborrei. Adarretatik eta sabaietatik zintzilik ordu asko egoten gara.

Askok esaten duten bezala ez gara zikinak eta ez ditugu beste animaliak baino gaixotasun gehiago transmititzen.

Ba al dakizue zein den gure janari gustukoena?
(euliak, kilkerrak, tximeletak, erleak, inurriak, armiarmak...)

- Ea hotelaren inguruan zenbat intsektu mota ezberdin ikusteko gai zareten!!

Bidean zehar, hainbat xomorro topatuko dituzu zoruan marraztuta.

- Asmatu al duzu zein ez den intsektua? (3 hanka pare baino gehiago baldin baditu, ez da intsektua).

Gure entzumen onari esker, ekolokalizazioa erabiltzen dugu janaria topatzeko.



ZER DA EKOLOKALIZAZIOA=
ondak bidali, objetuei jo eta entzumenari
esker, ondak jasotzen dituzte.

Xaguxatarron antzera, kobazuloan lagun batekin “hitz egin” eta hura entzuteko aukera duzu rokodromoan eta bertan zure indarra froga dezakezu.

- Nola?

Hotzarekin batera, janaria topatzea zailagoa izaten da, eta jateko aukerarik ez dugunez, atsedena hartzen dugu udaberria iritsi arte.

Kobazuloen sabaietan buruz behera igarotzen dugu negua erdi lo. **Hibernazioa**, neguan goxo egoteko modua.

- Laberintoan sartu eta ea irteera azkar topatzen duzun.

